

61 - AGERRE

1. HELBURUAK:

- 1 Santamaina auzoarekin uztartzeko honen jarraipena izango den etxebitza gunea antolatzea, dagozkion etxebizitza babestuak txertatuz.
- 2 Santamaina auzoak ibilgailuen igarobide aukera urri eta oztopotsuei aurre egitearren, eta era berean Makatzena etxaldea auzoan hobeto txertatzearren, Makatzena kalea luzatzea, saihesbide gisa, Santa Teresa eta Santamaina kaleekin bat egin arte.
- 3 Zuzkidurazko bizitokiak eraikitzeo lursaila lortzea.
- 4 Agerre eta Santa Teresa kaleetan dauden eraikinen atzealdeak txukuntzea eta antolatzea.
- 5 Aparkaleku berri ugari sortzea, auzoak dituen urritasunari neurri batean aurre egiteko.

2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Lurzoru hiritargaria
ESPARRUAREN AZALERA:	35.848 m ²
ERABILERA OROKORRA:	Etxebizitza
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	Ez dago
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	26.955 m ² (e)
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	11.260 m ² (e)
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	26.763 m ² (h) (36 artikulua)
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Ez dago
ETXEBIZITZA KOPURUA:	Berriak: 100
EGITARAU:	Egikaritzen

3. BEREGANATUTAKO ANTOLAMENDUA:

AE 89.- AGERRE esparruko plan partziala, Udal Plenoak 2008ko irailaren 18an behin betikoz onartutakoa, bereganatzen du HAPO honek.

4. ANTOLAMENDU XEHATUA:

ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:	Bereganatua (A4)
JARDUKETAREN EREMUA:	Esparrua bera
JARDUKETA ERA:	Hitzarmen-sistema (K4)
ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):	
- Irakaskuntza hornikuntza	1.320 m ² (e)
- Aparkaleku-eraikin hornikuntza	7.675 m ² (e)
- Eredu zabal eta berdeguneak	17.490 m ² (l)
- Aparkalekuak	250
- Makatzena, Santa Teresa eta Santamaina kaleekin lotura antolatu beharko da	

ERABILERA ARAUBIDEA:

- E. ohikoena: Trinkotasun handiko etxebizitza (71 artikulua)
- Gainontzean, onartutako plan partzialaren arabera

ERAIKIGARRITASUN XEHATUA: Onartutako plan partzialak zehaztu du

ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA: Onartutako plan partzialaren arabera

ESKUHARTZE GUNEA: BAI

BESTE BATZUK:

1. Gaur egungo eraikinak antolamenduarekin bat datozen ala ez bereganatutako planak zehaztu du.
2. 11.260 m² (e)-ko hirigintza-eraikigarritasun osotik trinkotasun handiko etxebizitzetara gehienez 8.761 m² (e) bideratu daitezke. Gainontzekoa, 2.499 m² (e), babestutako etxebizitzetara dagozkie (tasatuak).
3. Esparru honetan zuzkidura-bizitoki hornikuntza garatzeko 1.474 m² (l)-ko lur gordespena egiten da, eta bertan, gehienez, 6.700 m² (e) eraiki ahal izango dira.
4. Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko 36 artikuluan jasotako laukia loteslea da.

5. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 IHOBEEK eginiko "polutzaiak izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inventarioa"-ren arabera esparruan kutsatutako lurzorua egon daiteke (186 artikulua).
- 2 Esparruan garatu daitezkeen eraikigarritasunak ez ditu babes publikoko etxebizitzetara dagozkie gutxieneko estandarrek betetzen. Hori horrela, derrigorrezkoa den oreka betetze aldera, helburu horretarako eraikigarritasuna soberan duten esparruen garapenarekin bete beharko da (72 artikulua).
- 3 Esparruan gauzatu diren zuzkidura-bizitokiak, besteak beste, bertako legeko estandarra (169 m²) betetzeko balioko dute.